

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2025eko maiatza

Aurkibidea

1. BPGaren aurrerapena
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Enpresarien konfiantza
5. PMI konposatua
6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

1.EAEko ekonomia %2,0 hazi zen 2025eko lehen hiruhilekoan.

Lanaldi osoko lanpostuen kopurua %1,5 handitu zen aurreko urtearen aldean.

2. Lehen hiruhilekoan, 16 eta 64 urte bitarteko enplegu tasa %70,7 izan zen.

Gizonen eta emakumeen tasen arteko aldea gutxikagutxika murrizten ari da.

3. Euskadiko inflazioa %2,8ra jaitsi zen martxoan.

Elektrizitatearen eta erregaien merkatzeak azaltzen du KPlaren jaitsiera hori.

4. EAEko enpresek baikortasun handia erakusten jarraitzen dute.

Bigarren hiruhilekoari buruzko aurreikuspenak serie historiko osoko altuenak dira.

5. Euroaren eremuko PMI konposatua apirilean galgatu zen.

Manufakturen ekoizpena suspertu egiten da, baina zerbitzuek, ordea, bultzada galdu dute.

6. NDFk ohartarazi du muga zergek hazkunde globala geldiaraziko dutela.

Munduko ekonomia %2,8 haziko da aurten, aurreko txostenean aurreikusitakoa baino puntu erdi gutxiago.



EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


EAEko ekonomia %2,0 hazi zen 2025eko lehen hiruhilekoan

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%2,0



Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %2,0 hazi zen 2025eko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Tasa hori aurreko hiru aldietakoetan jaso zenaren antzeko balioa da. Emaizta horrek zertxobait gainditzen du Ekonomia Zuzendaritzak bere azken agertoki makroekonomikoan zenbatetsitako aurreikuspena. Industria sektorearen hobekuntzak (IPI %1,3 hazi zen urtarilean eta %0,5, berriz, otsailean) eta, bereziki, eraikuntzaren sektoreak hazkundera

bultzatu zuten eta kanpo sektorearen bilakaera konpentsatu zuten. Sektore horren esportazioak %4,7 uzurtu ziren urtarilean, nahiz eta otsailean %2,4 igo ziren.


Hiruhileko arteko tasan, irakurketa ere positiboa izan zen, 2024ko hirugarren hiruhilekoan hasitako goranzko joera sendotu zelako eta BPGaren hazkundera %0,6 izan zelako. Bi hazkunde horiek azken urtean mantendu den erresilientzia eta egonkortasun irudia indartzen dute.

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%0,6




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%1,5



Lan merkatuari dagokionez, kontu ekonomikoek zenbatetsi duten arabera, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, urte arteko %1,5 handitu da aurtengo lehen hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. Datu horrek esan nahi du azken urtebetean lanaldi osoko 14.000 lanpostu inguru sortu direla, 1.000.000 enpleguko mugarrira gero eta gehiago hurbilduz.


Hiruhilekoen arteko tasan neurtuta, EAEko enplegua %0,4 hazi zen, azken urteko erregistroen ildotik. Urte arteko zenbatespena guztiz bat dator Ekonomia Zuzendaritzak egindako aurreikuspenarekin, eta hiruhileko artekoa hamarren bat handiagoa izan zen. Enpleguaren bilakaera on horrek familien gastu ahalmena handituko du, kontsumo pribatua bultzatuz eta ekonomia-aren dinamismoari lagunduz.

ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%0,4



Iturria: Eustat.




Lehen hiruhilekoan, 16 eta 64 urte bitarteko enplegu tasa %70,7 izan zen

ENPLEGU TASA. GUZTIRA

Ehunekoak

1. HIRUHILEKOA

%70,7




BJAk argitaratutako informazioaren arabera, 2025eko lehen hiruhilekoan 16 eta 64 urte bitarteko biztanleen okupazio tasa %70,7 izan zen. Tasa hori aurreko hiru hiruhilekoetan erregistratu zirenak baino txikiagoa da, baina 2024ko hilabete berean lortutako balioa baino puntu erdi handiagoa da.

Sexuaren araberrako analisiak erakusten du oraindik ere alde handia dagoela bien artean.

Hain zuzen ere, gizonen enplegu tasa %73,2koa izan zen, eta emakumeena, berriz, %68,3koa. Beraz, bost puntuen arteko diferentziala dago oraindik. Hala eta guztiz ere, bi tasen arteko hurbilketa bat hautematen da, bai emakumeen tasen gertatzen den igoeragatik, serie osoko bigarren datu handiena izan baita, bai gizonen tasaren murrizketagatik, azken zortzi aldietako txikiena izan delako.


ENPLEGU TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoak



ENPLEGU TASA. GIZONAK

Ehunekoak




Langabezia tasari dagokionez, 2025eko lehen hiruhilekoan aurreko hiruhilekoko balio bera errepikatu da (%7,0). Kasu horretan ere, bilakaera kontrajarriak hauteman dira sexuaren arabera: emakumeen tasa nabarmen jaitsi da (%7,1), eta gizonena, ordea, igo (%6,8).

Beste aldetik, azpimarratu behar da espainiar nazionalitatea duten pertsonen langabezia tasa puntu erdi murriztu dela eta orain %5,6an dagoela, eta atzeritarrena, berriz, %18,5ean.


LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK

Ehunekoak



LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK

Ehunekoak



Iturria: Eustat.




Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

INFLAZIOA

Euskadiko inflazioa %2,8ra jaitsi zen martxoan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Martxoko KPIak %2,8ko balioa hartu zuen, aurtengo otsailean erregistratu zena baino bost hamarren txikiagoa. Horrekin, badirudi azken hilabeteetako moderaziorako joera sendotzen ari dela. Erregaiek eta elektrizitateak lagundu egin dute emaitza hori lortzen, merketu egin baitira. Bestalde, azpiko inflazioa %2,5 hazi zen, aurreko datua baino hamarren bat gehiago.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2023	2024	2025eko martxoa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	2,8	2,8
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	2,5	2,1
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	2,1	0,3
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	1,0	0,2
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	3,2	1,6
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	4,8	0,7
- Landu gabeko janariak (%6,4)	7,3	4,0	7,4	0,5
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	3,1	0,3


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Martxoan, otsailean apur bat apaldu ondoren, elikagaiek berriro ekin zioten urte hasierako goranzko bideari, eta %3,6ko urte arteko hazkundea izan zuten aurreko hileko datuekin alderatuta. Etxebizitzaren taldea, nahiz eta talde inflazionistena izaten jarraitu, gutxiago igo zen martxoan; horretan nabarmen laguntzen du elektrizitatearen prezioaren jaitsierak. Era berean, jatetxe eta hotel multzoek eta beste ondasun eta zerbitzu batzuek urte arteko %4,5eko

ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



eta %4,4ko igoerekin jarraitzen dute, hurrenez hurren, otsailean gertatutakoaren ildotik eta gainerako taldeek dituzten tasen oso gainetik, besteek igoera apalagoak izan baitituzte, %2 ingurukoak. Gutxien igo diren taldeen artean, jantziak eta oinetakoak (%0,7) eta altzariak eta etxeko gaiak (%1,5) aipatu behar dira. Azkenik, garraio eta aisialdi eta kultura taldeak %0,5 eta %0,4 merkatu ziren aurreko urteko martxoarekin alderatuta.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2025eko martxoa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,8	2,3	2,5
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,6	2,4	2,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,8	3,1	4,5
Jantziak eta oinetakoak	0,7	0,2	0,3
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	6,7	5,7	2,9
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,5	0,6	0,3
Osasuna	2,1	1,9	3,3
Garraioa	-0,5	-0,9	-0,2
Komunikazioak	2,0	2,0	-2,8
Aisia eta kultura	-0,4	-0,3	1,6
Hezkuntza	2,3	2,5	3,9
Jatetxeak eta hotelak	4,5	4,1	3,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,4	3,8	4,4

Iturria: INE eta Eurostat.

ENPRESARIEN KONFIANTZA

EAEko enpresek baikortasun handia erakusten jarraitzen dute


INEk enpresen konfiantzari buruzko inkestaren emaitzak argitaratu ditu, eta EAEko enpresen datuak oso positiboak dira. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekorako ateratzen den maila 137,0 da, aurreko datua baino puntu bat txikiagoa, baina serie historiko osoko handienetakoa. Beraz, enpresek baikortasun handia erakusten dute berriro.

Lehen hiruhilekoko egoerari buruzko erantzunak (9,7), jadanik amaituta baitago, positiboak izan dira berriro, baina aurreko hiruhilekoko baliogarrantzitsura (14,3) iritsi gabe. Bestalde, duela gutxi hasitako bigarren hiruhilekoari buruzko igurikimenak serie historiko osoko handienak dira, egungo egoeraren inguruko ziurgabetasuna gorabehera.


ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. EUSKADI

2. HIRUHILEKOA


137,0



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. ESPAINIA


2. HIRUHILEKOA
137,0




Estatu osoan, INEren inkestak islatzen dituen datuak ere oso onak dira. Kasu honetan, bigarren hiruhilekoan lortutako balioa 137,0koa da, aurreko hiruhilekoko emaitzarekin bat datorrena eta aurreko hiru datuetatik oso gertu dagoe-na. Beraz, enpresek emandako erantzunetan egonkortasunaren irudia dago, baikortasun handiko testuinguru batean.

Amaitutako hiruhilekoari dagokionez, lortutako balioa (4,5) positiboa da berriro, baina lehen hiruhilekoko emaitza bikainetik urrun dago (11,3), azken hori serie osoko handiena izan baitzen. Aitzitik, egungo hiruhilekorako igurikime-nek (11,2) nabarmen gaintitu zuten aurrez zen-batetsitako edozein emaitza, batez ere lehen hiruhilekokoa (4,1).

AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



Iturria: INE.



PMI KONPOSATUA

Euroaren eremuko PMI konposatua apirilean galgatu zen


Apirilean, euroaren eremuko PMI konposatuak 50,1eko balioa hartu zuen, ekoizpena egonkortu dela iradokitzen duena, ia inolako igoerarik edo murrizketarik gabe. Adierazle hori osatzen duten bi sektore handiek jotzen zituzten rola irauli direla hautematen da. Alde batetik, enpresen ekoizpenak atzean utzi du aurreko hilekoetako ahultasuna, eta sendo handitu da (51,2); zerbitzuak, berriz, hilabete askotan posi-

tiboan mantendu dira, eta uzkuertze eremuan kokatu dira (49,7).


Deigarria da egiaztatzea AEBek egindako muga zergen mehatxuen aurrean, Europaren erantzuna enpresen ekoizpena handitzea izan dela, baina ez da nahikoa izan zerbitzuen tonu galera konpentsatzeko. Oro har, enpresen konfiantzak beherakada handia izan du.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2025EKO APIRILA
50,1




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Herrialdeka, euroguneko bi ekonomia nagusiek antzeko bilakaera erakusten dute. Bi herrialdeetan manufakturen ekoizpenak gora egin zuen, baina zerbitzuen jarduera uzkuritu egin zen. Frantziaren kasua (47,3) Alemaniarena (49,7) baino nabarmen okerragoa da, agian herrialde horrek gobernu sendo bat osatzeko dituen zailtasunengatik, eta badirudi Alemanian hori lortzetik gertu dagoela.

Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuak eta AEBek okerrera egin zuten. Azken kasu horretan, zerbitzuek indarra galdu zuten, baina manufakturrek hobera egin zuten, protekzionismo handiagoa aurreikusten delako.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



Iturria: Markit




Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

NDF-REN AURREIKUSPENAK

NDFk ohartarazi du muga zergek hazkunde globala geldiaraziko dutela

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




NDFren aurreikuspen berrietan kalkulatu da oztopo komertzialek munduko merkataritzaren bolumena %1,5 murriztuko dutela 2025ean eta %0,8, berriz, 2026an. Produzioaren hazkunde globalari dagokionez, eragina bost hamarrenekoa izango da aurten, eta hiru hamarrenekoa datorren urtean. Mexiko izango da tentsio komertzialek gehien kaltetuko duten herrialdea, eta bere hazkundea %1,7 murriztuko da; ondoren, AEBren beste aliatu tradizional batzuk egongo dira, hala nola Kanada, Erresuma Batua eta Japonia.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2024	2025	2026	2025	2026
Munduko ekonomia	3,3	2,8	3,0	-0,5	-0,3
Ekonomia aurreratuak	1,8	1,4	1,5	-0,5	-0,3
AEB	2,8	1,8	1,7	-0,9	-0,4
Eurogunea	0,9	0,8	1,2	-0,2	-0,2
Alemania	-0,2	0,0	0,9	-0,3	-0,2
Frantzia	1,1	0,6	1,0	-0,2	-0,1
Italia	0,7	0,4	0,8	-0,3	-0,1
Espainia	3,2	2,5	1,8	0,2	0,0
Erresuma Batua	1,1	1,1	1,4	-0,5	-0,1
Japonia	0,1	0,6	0,6	-0,5	-0,2
Garatzen ari diren herrialdeak	4,3	3,7	3,9	-0,5	-0,4
Txina	5,0	4,0	4,0	-0,6	-0,5
India	6,5	6,2	6,3	-0,3	-0,2
Errusia	4,1	1,5	0,9	0,1	-0,3
Brasil	3,4	2,0	2,0	-0,2	-0,2


EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



EUROGUNeko BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Erakundeak hornidura kate globalen konplexutasuna eta muga sariak ekoizpen kateetan, bereziki AEBetako ekonomian, sortuko duten distortsioa azpimarratu ditu. Horren ondorioz, NDFk produktibitatea galtzea, jarduera ekonomiko txikiagoa eta ekoizpen kostuak eta prezioak handitzea aurreikusten du AEBentzat. Horregatik, aurreikuspenen agertoki nagusiak aurreikusten du 2025ean AEBetako inflazioa %3an mantenduko dela, eta 2026an %2ko helburua baino bost hamarren gorago egoten jarraituko duela, langabezia tasak gora egingo duen bitartean. Ziurgabetasuna oso handia da, eta dolararren eta finantzaketa baldintzen bilakaerak muga zergen ondorio negatiboak areagotu ditzake.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
BPG	2,7	2,2	2,4	2,1	2,0	2,1	2,0
Barneko azken kontsumoa	1,7	2,4	2,2	2,3	2,4	2,5	—
Familien kontsumoa	1,9	2,4	2,1	2,3	2,4	2,5	—
Administrazioaren kontsumoa	1,3	2,3	2,4	2,3	2,3	2,3	—
Kapital eraketa gordina	1,8	2,1	2,3	1,7	2,0	2,3	—
Barne eskaria	1,8	2,3	2,2	2,2	2,3	2,4	—
Esportazioak	1,0	0,1	-3,4	2,1	2,0	-0,3	—
Inportazioak	-0,2	0,3	-3,5	2,2	2,4	0,2	—
Lehen arloa	16,0	3,1	6,5	2,8	1,0	2,2	—
Industria eta energia	1,8	1,0	1,7	1,0	0,8	0,5	—
Eraikuntza	2,6	1,6	2,2	1,0	0,9	2,2	—
Zerbitzuak	3,0	2,6	2,6	2,5	2,5	2,7	—
Balio erantsi gordina	2,8	2,1	2,4	2,1	2,0	2,1	—
Ekoizkinen g/ zerga garbiak	1,7	2,3	2,3	2,3	2,2	2,2	—
Enplegua	1,8	1,8	2,0	1,9	1,6	1,6	1,5

Oharra: Hiruhilekoko desagregazioa eguneratu gabe dago Eustaten aldetik.
2023ko aurrerapena eta 2024ko behin-behineko datuak.

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Martxoa

2024									2025		
Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Iraila.	Urria	Azaroa	Abend.	Urt.	Otsa.	Mar.
91,4	97,4	99,3	96,4	95,9	98,8	95,1	97,9	96,3	99,4	95,8	94,3
X<50			50<X<100			X>100					
Atzeraldia			Hazkunde leuna			Hazkunde bizia					

Euskal ekonomiaren termometroak 94,3 ko balioa izan zuen martxoan, azken hilekoetako bilakaeraren ildotik Barne eskariak aurrera egiten jarraitzen du, kanpo merkataritzaren geldialdia konpentsatzea lortzen duten kontsumoari eta inbertsioari esker Oro har, ekonomiak hazkunde tasa nabarmena lortu du, sektoreen arteko erritmo desberdinekin bada ere Eraikuntzak hazkunde handia izan du, eta zerbitzuek aurrera egiten eta lan merkatua dinamizatzen jarraitzen dute, baina iaz baino erritmo apalagoan. Industriak, bestalde, azken hilabeteetako ahultasuna luzatu du, suspertze zantzurik gabe eta ziurgabetasun gero eta handiagoarekin.



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025				2025	2026
	I	II	III	IV		
BPG	1,9	2,1	2,1	2,0	2,1	1,8
Barneko azken kontsumoa	2,3	2,3	2,2	2,0	2,2	1,7
Familien kontsumoa	2,4	2,4	2,3	2,0	2,3	1,7
Administrazioaren kontsumoa	1,9	2,1	2,0	1,9	2,0	1,7
Kapital eraketa gordina	2,2	2,5	2,8	2,8	2,6	2,5
Barne eskariaren ekarpena	2,3	2,4	2,3	2,1	2,3	1,9
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,2	-0,1	-0,2	-0,1
Lehen arloa	2,4	1,0	0,5	-1,0	0,8	-0,1
Industria	0,6	1,2	1,0	1,7	1,1	1,6
Eraikuntza	2,4	3,1	3,1	2,4	2,7	2,2
Zerbitzuak	2,3	2,3	2,5	2,2	2,3	1,7
Balio erantsi gordina	1,9	2,1	2,2	2,0	2,1	1,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	1,9	1,7	2,2	1,9	2,3
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,5	1,5	1,4	1,5	1,2
Landunak (BJA)	1,5	1,5	1,4	1,3	1,4	1,0
Langabezia tasa	7,3	6,8	6,8	6,9	7,0	6,7

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
BBVA	2,5	1,9	Euskal Ganberak	2,2	—
Ceprede	2,5	2,3	Eusko Jaurlaritza	2,1	1,8
Caixabank	2,4	—	Laboral kutxa	1,8	—
Hispalink	2,2	2,0	Confebask	1,8	—

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
BPG	2,7	3,2	2,7	3,3	3,3	3,3	2,8
Kontsumo pribatua	1,7	2,8	2,2	2,6	2,9	3,6	3,5
Kontsumo publikoa	5,2	4,1	5,0	3,5	4,3	3,8	3,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,1	3,0	2,3	3,0	2,1	4,5	4,1
- Aktibo finko materialak	2,4	3,3	1,9	3,4	2,7	5,1	4,2
- Eraikuntzan	3,0	3,5	2,4	3,5	3,9	4,2	2,2
- Ekipamendu ondasunetan	1,1	2,8	0,8	3,2	0,5	6,8	8,0
- Landutako baliabide biologikoak	6,2	5,8	5,2	5,2	6,3	6,3	6,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,0	1,5	4,0	1,0	-0,4	1,8	3,6
Nazio eskaria (ekarpena)	1,7	2,8	2,4	2,6	2,8	3,5	3,2
Esportazioak	2,8	3,1	1,7	2,8	4,7	3,2	2,1
Inportazioak	0,3	2,4	1,0	1,1	3,7	3,9	3,6

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
AFI	2,8	2,3	Universidad Loyola Andalucía	2,5	2,2
BBVA Research	2,8	1,8	Cámara de Comercio España	2,4	1,9
Equipo Económico (Ee)	2,8	2,2	Funcas	2,4	1,8
CEEM-URJC	2,6	1,9	Instituto Estudios EconómicoS	2,4	1,8
ICAE-UCM	2,6	2,0	Mapfre Economics	2,4	1,7
Oxford Economics	2,6	1,7	Intermoney	2,3	1,9
CaixaBank Research	2,5	2,1	Consenso (media)	2,5	1,9
CEPREDE-UAM	2,5	2,1	Espainiako Bankua (2025-03)	2,7	1,9
CEOE	2,5	2,0	Gobernua (2025-02)	2,6	2,2
EthiFinance Ratings	2,5	2,2	ELGA (2025-03)	2,6	2,1
Metyis	2,5	1,9	NDF (2025-04)	2,5	1,8
Repsol	2,5	2,0	AIReF (2025-01)	2,5	--
Santander	2,5	1,7	EB (2024-11)	2,3	2,1

Iturria: Funcas.



**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**

ESTADÍSTICA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
AEB	2,9	2,8	2,9	3,0	2,7	2,5	2,0
Txina	5,2	5,0	5,3	4,7	4,6	5,4	5,4
Japonia	1,5	0,1	-0,8	-0,7	0,7	1,2	—
Kanada	1,5	1,3	0,7	1,2	1,9	2,4	—
Europar Batasuna	0,4	1,0	0,6	0,8	1,1	1,4	1,4
Eurogunea	0,4	0,9	0,4	0,5	1,0	1,2	1,2
Alemania	-0,3	-0,2	-0,1	-0,2	-0,3	-0,2	-0,2
Frantzia	0,9	1,2	1,4	1,0	1,3	0,8	0,8
Erresuma Batua	0,4	0,5	0,5	0,9	1,0	1,4	—
Italia	0,7	0,7	0,3	0,7	0,6	0,5	0,6
Herbehereak	0,1	1,0	-0,7	0,8	1,7	1,9	2,0

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2025EKO APIRILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2025	2026	2025	2026	2025	2026
AEB	1,4	1,7	3,2	2,7	4,4	4,6
Japonia	1,0	0,7	2,9	1,8	2,5	2,4
Kanada	1,0	0,8	2,4	2,1	7,2	7,1
Europar Batasuna	1,1	1,5	2,2	2,0	—	—
Eurogunea	0,9	1,2	2,2	1,9	6,4	6,4
Alemania	0,1	1,3	2,2	2,1	6,3	6,2
Frantzia	0,6	1,0	1,3	1,6	7,6	7,7
Erresuma Batua	0,7	1,1	3,1	2,4	4,7	4,9
Italia	0,5	0,8	1,9	1,7	6,3	6,3
Espainia	2,5	1,9	2,5	2,0	10,5	10,2
Herbehereak	1,5	1,2	3,0	2,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.